

PRAKTIKA: OINARRIZKO ESKUBIDEAK

Unicef Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsak argitaratutako datuen arabera, munduan eskolara joaten ez diren 264 milioi haur daude, eta hauen ia herena krisi ezberdinengatik jota dauden 35 herrialdetan bizi dira. Tamalez, gobernuek eskaintzen dituzten laguntza humanitarioen %2a besterik ez da zuzentzen hezkuntzara.

Eskolara joaten ez diren lau umetatik bat herrialde hondatu eta suntsitu batean bizi da, haurra neska izanez gero, eskolara ez joateko probabilitatea mutilena baino 2,5 handiagoa izanez. Blanca Carazo Unicefeko arduradunak adierazi zuenez, haur batek eskolara joateaz uztean esklabo-salerosketa, lan esplotazio, ezkontza behartu edo hautapen-prozesu batean nahitaez parte hartu behar izateko arrisku handia du epe motzera. Hori gutxi balitz, epe luzera ere ondorioak ekarriko ditu behar bezalako hezkuntza bat ez jasotzeak, etorkizuneko aukera ilusionagarri asko ez izatea batik bat.

2016an derrigorrezko desplazamenduak sekula baino gehiago izan ziren eskoletan, 65,6 milioi pertsonak hezkuntza bat jasotzeaz utzi zuten. Hori beren herrialdeetan gatazka oso larriak gertatu zirelako edo gertatzen ari zirelako izan zen batik bat, baina kasu zehatz batzuetan baita aldaketa klimatiko, egoera ekonomiko edo pertsekuzio politiko edo erlijiosoagatik ere.

Gaia apur bat gurera ekarriz, Europari dagokionean, egoera ez da inondik inora ere harro egoteakoa. Europar Batasuneko 10 herrialdek bakarrik ematen diete agiririk gabeko haurrei hezkuntza eskubidea; gainontzeko herrialdeek zalantzak dituzte gai honen inguruan eta 5 herrialdek erabat bazterten dute aukera hori. Eskolara joatea lortzen duten haur askok arazo kulturalengatik edo beren ama hizkuntzagatik arazoak izaten dituzte integrazio prozesuan, eta kasu batzuetan xenofobia edo gaitzespen soziala ematen da.

Hezkuntza arazo hau are gehiago gerturatuz, Espainiak ere badu zer konpondua, beste herrialde eta kontinente askorekin alderatuta datuak positiboak diren arren. 2008tik 2019ra igo egin da eskolara joan ezin duten haurren kopurua; 2010ean 90. hamarkadaz geroztik lortutako daturik kaskarrenak izan ziren, haurren %0,39a zen eskolaratu gabea. Gainera, gobernuak hezkuntzara zuzentzen duen diru kopurua %4,28 arte jaitsi da.

Espainiako konstituzioaren 27.1 artikulua honela dio: *“Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna aitortzen da”*. Hau da, pertsona orok du hezkuntza jasotzeko eskubidea. Gainera 27.4 artikulua dioenez, oinarrizko irakaskuntza behartua eta dohainik da. Aitzitik, artikulua hauek ez dira errespetatzen Espainiako leku guztietan.

27. artikuluari konstituzioak ematen dion babes maila 53.1 eta 53.2 artikuluek barnebiltzen dute. Bi artikuluek askatasun eta eskubideen babesa eta babes baliabidea eskaintzen dute. 53.1 artikulua 14 eta 38 artikuluen arteko artikulua babesten ditu eta 53.2 artikulua, berriz, 14 eta 29 artean. 27. artikulua bi taldeetan sartzen denez, bi artikuluen (53.1 eta 53.2) babesa jasotzen du.

Hori horrela izanik, 27. artikulua urratuko balitz, kaltetuak bi prozesu judizial gauzatzeko eskubidea izango luke. Lehenik eta behin, lehen istantziara joango litzateke eta epai baten epaiketa jasoko luke, ondoren, bigarren istantziara joateko eskubidea izango luke eta bertan bi epai topatuko litzuzke. Horren ostean, hirugarren istantzia iritsiko litzateke eta bertan hiru epai egongo lirateke.

Azkenik, Auzitegi Gorenera joango litzateke kaltetua. Prozesu hori amaitzean Auzitegi Gorenera joan izana nahikoa izango ez balitz, eskubide hori urratu zaion pertsonak babes helegitea jar lezake Auzitegi Konstituzionalean. Auzitegi Konstituzionalera joz 53. 2 artikulua erabiliko luke.

Hiru babes mailek elkarren artean duten ezberdintasun handiena da 1978ko Konstituzioko artikulua ezberdinak babesten dituztela:

- 14-29 artikuluen babes-maila 53.2 artikulua da
- 14-38 artikuluen babes-maila 53.1 artikulua da
- 39-52 artikuluen babes-maila 53.3 artikulua da

Espanian eskubide sozialak ez dira beharrezkoak beste herrialde batzuetan bezala, eta horregatik ez dituzte laguntzak ematen. Lehenengo bi artikulua (53.1 eta 53.2) derrigorrez bermatu behar dira, baina, aitzitik, hirugarrena (53.3) kontuan izango dute.

14-29 artikuluen eraginkortasunari dagokionez, artikulua hauek zuzenean aplikagarriak dira eta auzitegi arruntetan babes judizial berezia jasotzen dute. Auzitegi Konstituzionalean, aldiz, babes helegite konstituzionala, baldin eta beste baliabideak agortu badira.

30-38 artikuluen eraginkortasunari dagokionez, lehen aipatu dugunak bezala zuzenean aplikagarriak dira, ezberdintasuna auzitegi arruntetan dute, bertan hauek auzitegi arruntetan jasotzen dutelako. Auzitegi konstituzionalean aldiz, oinarrizko eskubideak babesteko helburuarekin, eta "53.2ko babes maila" edo bide arrunta nahikoa ez denengan; bertan dagoen 30. artikulua biltzen duen kontzientzia-eragozpen eskubidea babesteko ere erabil daiteke.

39-52 artikuluei dagokienez aldiz, eraginkortasunari begiratu gero, garatzen dituen lege bat behar dute. Auzitegi arruntetan garatzen dituen legerik balego babes judizial arrunta jasoko lukete. Auzitegi Konstituzionalean berriz ez luke zuzenean eraginik izango.

